



EAEn NORBERAREN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDE TASUNARI ARRETA EMATEKO LEGEAREN APLIKAZIOA TXOSTEN BEREZIAREN AURKEZPENA

Menpeko pertsonatzat jotzen ditugu adinak, gaixotasunak edo ezgaitasunak eragindako arrazoiengatik, eta gorputz, adimen edo zentzumen autonomiarik ez dutelako edo galdu dutelako, beste pertsona baten edo batzuen arreta behar dutenak edo eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza handia behar dutenak, edo, adimen ezgaitasuna edo gaitz mentala duten pertsonen dagokienez, norberaren autonomiarako bestelako laguntza batzuk behar dituztenak.

Menpekotasuna bizitzako aro guztietan ager daiteke, haurtzarotik hasi eta zahartzarora bitartean, nahiz eta gehienbat azken aro horretan gertatu. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), menpeko pertsonatzat onartuak izan diren guztietatik, **%80** inguru **65 urtetik gorakoak** dira; are gehiago, onarpenetatik %50 eta %60 bitartekoak 80 urtetik gorako pertsonak dira. Sexuari dagokionez, ofizialki menpekotasun-egoera onartu zaien pertsonetatik %64 emakumeak dira.

Azken hamarkadetan, **menpekotasuna**, babestu beharreko gizarte-arriskutzat hartua izatera iritsi da. Hainbat aldaketa demografikok eta sozialek eragin dute menpekotasun-egoeran dauden biztanleak gero eta gehiago izatea, honako hauek, esate baterako: heriotza-tasak behera egin du, bizitza-itxaropenaren indizeek gora egin dute, biziraupen-tasa altuagoak daude gaixotasun kroniko eta jaiotzetiko asaldura jakin batzuen kasuan, populazioa zahartzen ari da edo lanean eta errepideetan gertatzen diren ezbeharren kopurua igo egin da. Horrek guztiak eta, gainera, emakumea lan-merkatuan sartzeak, gizon askok zaintza informala beren gain ez hartzeak eta familia-egiturak aldatzeak kolokan jarri ditu "laguntza informala" zimenduak –laguntza horixe da menpeko pertsonen zaintzaren euskarri nagusia, eta batez ere emakumeek hartzen dute bere gain–.

Norberaren Autonomia sustatzeari eta Menpekotasun egoeran dauden pertsonen Arreta emateari buruzko Legea (AMAL) Estatuko araudia da eta 2007ko urtarrilean jarri zen indarrean. Legea testuinguru horretan sortu zen, helburu honekin: *ahultasun handiko egoeran egoteagatik, eguneroko bizitzako funtsezko jarduerak burutzeko, norberaren autonomia handiagoa lortzeko eta euren herritar eskubideak osorik erabili ahal izateko laguntzak behar dituzten pertsonen premiei erantzutea*.

Gizarte-politiken arloan eztabaidatu ezinezko **aurrerapena** da hori, izan ere, **eskubide subjektibo** berri gisa onartzen eta arautzen du menpeko pertsonen legean bertan xedatutako prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea. Horrela, herri-administrazioek bere gain hartu dute autonomia sustatzeko eta menpekotasun-egoerari arreta emateko erantzukizuna, eginkizun hori zuzenean eta zeharka kudeatuz. Ez dago ukatzerik **familiak eta gertukoek egiten duen zaintza-lana aitortzea** oso garrantzitsua dela, eta horixe gertatu dela araudi hori onartzean. Horren erakusgarri da lege horrek familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa ezarri duela (FIZPE).

AMALek xedatzen dituen **prestazio** gehienak (telelaguntza zerbitzua, etxez etxeko laguntza, eguneko egoitza, egoitza-arretako zerbitzuak, eguneroko bizitzan normaltasunez jarduteko beharrezko laguntza teknikoak edo tresnak, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko mota bat, etab.) **lehendik ere ematen zituzten euskal administrazioek**, menpekotasunari emandako arreta eta babesa sendotzearen aldeko ahalegin irmoa eginez. Beste prestazio batzuk, aldiz, berriak dira – adibidez, lehen aipatu dugun FIZPE edo laguntza pertsonaleko prestazioa-. Gainera, EAEn, foru aldundiek eta zenbait udalek erraztu dute familia zaintzaileentzako laguntza zerbitzuak finkatzea (atseden hartzeko egonaldiak, autolaguntza taldeak, prestakuntza, laguntza psikologikoa, informazioa eta aholkularitza, etab.), eta horiek ez daude AMALen berariaz xedatuta, oso erabilgarriak eta garrantzitsuak izan arren.

Zifrei dagokienez, nekez egin dezakegu analisi kuantitatibo fidagarria arlo honetan, **ez baitago informatzeko sistema integratu zorrotzik datuak irizpide bateratuen bitartez bildu eta ustiatzeko**. Ezinbestekoa iruditzen zaigu sistema hori lortzeko aurrerapausoak egitea, gai horretan zerikusia duten administrazio guztien partaidetzarekin.

Euskal Herriko **98.673 herritarrek eskatu dute menpekotasun-egoera onar diezaieten**, hau da, **EAEko biztanle guztietatik %4,54k**. Guztira **93.395** pertsona **baloratu dituzte** (eskatzaileen %94,65) eta horietatik **77.352k lortu dute menpekotasun-egoera onartzea** (%82,82k) –euskal herritarren artean, %3,56k, hain zuzen –.

Menpekotasunaren benetako egoerak sobera gainditu ditu Estatuko Administrazio Orokorrek 2007ko maiatzean egin zituen **aurreikuspenak** eta balioespenak. Horrela bada, adierazi dugunez, EAEn 77.352 pertsonari onartu zaie menpekotasun-egoera, **bere garaian aurreikusitakoei baino 22.808 pertsona gehiagori**, edo, bestela esanda, aurreikusitakoei baino %41 gehiagori.

Foru administrazioek menpeko pertsonatzat jo dituzten pertsonetatik **%43,74 menpekotasun-maila handiko** pertsonatzat dira (III. Gradukoak); **%31,22** II. Gradukotzat (**menpekotasun larria**) eta **%25,04** I. Gradukotzat (**menpekotasun arina**).

Txostena ixteko orduan, **prestazioa jasotzeko eskubidea duten pertsonetatik %19,01 arretaren zain zeuden**, hau da, **artean ez zitzaien esleitu jasotzeko eskubidea zuten prestazioetatik bakar bat ere**. IMSERSOk emandako azken datuen arabera, gaur egun, Estatuko **hamabi autonomia erkidegotan**, arretaren zain dauden pertsonen ehunekoa EAEn erregistratutakoa baino **handiagoa da**.

Menpekotasun-egoeran dauden pertsonak izaten duten prestazio-motari dagokionez, argi ikusten da familiaren barruan zaintzeko prestazio ekonomiko nagusitzen dela (%41,90), eta, ondorioz, begi-bistakoa da AMALek prestazio ekonomikoak ezohikotzat jotzeko eta zerbitzuei lehentasuna emateko helburua zuen arren, ez dela betetzen ari. Bigarren tokian egoitza-arreta dago (%20,72), eta

ondoren etxez etxeko laguntza-zerbitzua (%11,88), eguneko zentroa (%11,15) eta telelaguntza. Zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoak eta laguntza pertsonalak askoz garrantzi gutxiago dute (%2,38 eta %2,32, hurrenez hurren).

Hiru lurralde historikoetako **foru aldundiek** bere **gain hartu dute** sistema berria **ezartzeko** eta Estatuko araudia garatzeko **gidaritza**, administrazio autonomikoaren eta udal administrazioaren lankidetzeta eta partaidetzarekin. Hasierako gelditze hori gaindituta, esan behar dugu analisi kuantitatiboak EAEko egoeraren irudi ona eskaintzen digula, Estatukoaren aldean.

Oro har, **egokitzat jo genezake kudeaketa**, batez ere kontuan hartzen baditugu Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan antzeman diren atzerapenak eta arazoak. Hala eta guztiz ere, **zenbait alderdi hobetu daitezkeela** esan daiteke. Alderdi horien berri ematen dugu txostenean barrena.

Antzeman dugunez, **hiru lurralde historikoetan AMAL ez da berdin aplikatu**, eta horrek era askotako alderdietan du eragina. Horrek herritarrentzat ulertezinak diren egoerak sortzen digu eta, zenbaitetan, eskubideak modu desberdinean baliatu ahal izatea. Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuen Euskal Legea garatzeko ezarri dituen lehenetsuen artean egon beharko luke gai horrek –legea garatzeko, erakunde maila guztien berrespena behar da eta ez luke gehiago luzatu behar–. Era berean, sortu berri den Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren agendan ere agertu beharko luke, lurraldeen artean orain dauden desorekak gaindituko direla bermatzeko.

Orobat, **gaiarekin zerikusia duten administrazioen artean** (udal, foru eta autonomia administrazioak) **koordinazio egokia** erraztu behar da, bereziki **gizarte sistemaren eta osasun sistemaren artean**. Puntu honetan azpimarratu beharra dago biztanle talde batzuek erabateko arreta behar dutela: esate baterako, gaixo kronikoek; buru-gaixoek, behar baino lehen, pisu gutxirekin edo ezintasunen bat izateko arriskuarekin jaiotzen diren haurrek; ezinduek; edo osasun zainketa bereziak behar dituzten edadetuek.

Menpekotasun egoera onartzeko eta sistemako prestazioak esleitzeko prozedura dela eta, epeak dezentelaburtu diren arren, administrazio prozedura bakar batean bateratu behar dira oraingo prozesuaren hiru faseak, alegia, menpekotasun maila zehaztea, arretarako banakako programa prestatzea eta zerbitzua edo prestazio ekonomikoa esleitzea –sarritan hainbat prozedura gainjartzen zaizkio elkarri–. Hiru fase horiek bateratuz, erantzuteko denborak bizkortuko lirateke, eta gehiegizko burokratizazioa saihestu, izan ere, burokratizazioak ez luke agertu behar hain kontuzkoa den gai batean, arreta lehenbailehen ematea arras garrantzitsua baita kasurik gehienetan.

Gure autonomia erkidegoa erreferentzia izan da –eta oraindik ere bada– gizarteko alderdi askotan. Menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako eta haien zaintzaileentzako **gizarte baliabideak** (zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta programak) **sortzeko eta mantentzeko lanean jarraitu behar da**. Oro har, zerbitzuak eta prestazioak estaltzeko tasak, pixkanaka, gure erkidegoko menpeko pertsonen

egokitu beharko litzaizkieke. Era berean, itxaron-denborak laburtu beharko lirateke baliabideak jasotzeko –plaza nahikorik ez izateak eragiten ditu atzerapenak– eta oinarrizko zerbitzu jakin batzuk jasotzeko (adibidez, etxeko laguntza edo telelaguntza zerbitzua). Ildo horretan, menpekotasun-egoerak prebenitzeko eta norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuak bultzatu eta mantendu behar dira, eta indartu egin behar dira pertsona bere bizilekuan mantentzera bideratutako neurri guztiak (telelaguntza zerbitzua, etxeko laguntza, laguntzeko produktuak, etxebizitza egokitzea, eguneko zentroak, egoitzetan eta eguneko zentroetan aldi baterako edo asteburuko egonaldiak, zainzaileek atsedean hartzeko eta haiei laguntzeko programak, eta abar. Halaber, konpondu beharra dago adimen ezinduei, buru-gaixoei edo gor-itsuei eskainitako arretan antzeman den gabezia.

Ezinbestekoa da **zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen arteko bateragarritasuna ahalbidetzea (baita zerbitzu ezberdinen artekoa ere)**, arreta egokia bermatze aldera.

Arestian aipatu ditugun gomendioez gain, txostenean **beste gomendio batzuk** ere egin ditugu: zainzaileei prestakuntza, laguntza eta atsedena emateko tresna guztiak bultzatu eta mantendu behar dira, trebetasunak eta tresna baliagarriak eman behar zaizkie beren erantzukizunari aurre egiteko, eta zaintza-lanak beraien osasunean izan lezakeen eragin kaltegarria arindu behar da; eragindako talde nagusiei laguntzeko asmoz elkarteek eta gizarte erakundeek eskaintzen dituzten programen eta zerbitzuen egonkortasuna bermatu behar da; neurri egokiak abiarazi behar dira Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarraren Ereduari buruzko agirian egin ziren proposamenak eta aurreikuspenak gauza daitezzen (agiri hori Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak onartu zuen, 2011ko otsailaren 28an); herritarrak babesteko neurri gehiago jartzen jarraitu behar da, edo bultzatu eta sendotu egin behar dira sektore publiko nahiz pribatuan familia eta lana bateragarri egiteko jarduerak.

Elkarteek, gizarte-erakundeek, menpeko pertsonen (adineko, ezindu, buru-gaixo, gaixo kroniko, eta abarren) eta haien famili eta gizarte inguruaren **ordezkari diren erakundeek**, zainzaile ez profesionalak berek, **funtsezko lana** egiten dute norberaren autonomia sustatzen, menpekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen eta haien eskubideak defendatzen. Hortaz, behar-beharrezkoa da gure administrazioek **haien lana babestea**. Haien balorazioak eta ekarpen interesgarriak txostenean sartu ditugu eta kontuan hartu beharrekoak dira politika publikoak eratzeko orduan.

Txostenean, araua indarrean jarri zenetik **herritarrek egin dituzten kexak** ere jaso ditugu, baita kexa horiek bideratzean izan dugun esku-hartzea ere. Orokorrean, ikusi dugu **eragindako administrazioek oso jarrera egokia dutela etengabe hobetzen jarraitzeko** eta, horren ondorioz, hainbat aldiz garrantzi handiko aldaketak egin direla –araudi aldaketak edo administrazioako jarduerari dagozkionak–.

Gai honetan parte hartzen duten eragile guztiek adierazi digutenez, **kezkatuta daude sistemaren egonkortasun publikoa dela-eta**; erakunde honek badaki horren berri. Gizarte-eztabaida egiten jarraitu beharko da, horretan sakondu, gizarteko eta politikako eragile horien guztien partaidetza aktiboarekin, akordio bat lortzeko.

Akordio horretan lehentasuna izango dute elkartasunaren eta aztertzen ari garen taldearen herritar-eskubideak errespetatzearen balioek.

Ohartzen gara krisialdiak eragindako murrizketek gizarte-politiketan eragiten ari direla. Onartu beharra daukagu finantzaketaren arazoa, batzuetan, baliabideen kopuru osoaren ondorioa baino gehiago, ezartzen diren banaketa-irizpideen ondorioa dela, eta, azken batean, **norberaren autonomia sustatzeak eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonak babesteak euskal herri administrazioen lehentasuna izan behar duela.**

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 28a